BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

3367

EBAZPENA, 2014ko uztailaren 16koa, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko 2014-2020 epealdirako Landa Garapenerako Programaren ingurumen-jasangarritasun txostena jendaurrean jartzeko dena.

Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsa (aurrerantzean Feader) finantzaketa-tresna bat da, Europar Batasunaren landa-garapenaren politika indartzea eta haren aplikazioa erraztea helburu duena.

Feader araudiak xedatutakoaren arabera, Europar Batasuneko landa-garapeneko helburuak lortzeko estrategia bat aplikatuko duten estatu kideetan erabiliko da funtsa hori, landa-garapeneko programen bidez. Estatuan, autonomia-erkidego bakoitza 2014-2020 epealdirako landa garapenerako plan propioa lantzen ari da (aurrerantzean PDR), betiere Estatuaren eskualde-programen elementu komunak biltzen dituen estatu-esparruaren babesean.

Planen ingurumen-eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 11. artikuluan eta ingurumen-eraginaren ebaluaziori buruzko abenduaren 9ko 21/2013 legearen 20. artikuluan aurreikusitakoaren babesean egin da ingurumen-jasangarritasun txosten hau, eta PDR-a ingurumenaren ikuspegitik ebaluatzea da haren helburua.

211/2012 Dekretuaren 8. artikuluari jarraituz, 2014ko maiatzaren 23an EAEko 2014-2020 epealdirako Landa Garapenerako Plana gauzatzen hasteko agiria bidali zitzaion ingurumen-organoari, eta ingurumen-prozedura hasi zen. 2014ko uztailaren 2an, EAEko 2014-2020 PDRaren ngurumen-jasangarritasun txostenaren garrantzia zehazten duen erreferentzia-agiria egin zuen ingurumen-organoak.

Ingurumen-organoak egindako erreferentzia-agiriak ezarritako norainokoari eta edukiari erantzuten dio ingurumen-jasangarritasun txosten honek.

Agiria idazterakoan, aintzat hartu da Euskal Autonomia Erkidegoko PDRa estatuaren esparruan txertatuta dagoen eskualde-programa bat dela, eta, beraz, pentsatu da esparru horren elementu komunak jasotzea komeni dela, betiere beste autonomia-erkidego batzuetako PDR-en ingurumen-jasangarritasun txostenekiko (ISA) koherentzia bermatzeko.

Esleitutako baliabideen aplikazio eraginkorra eta eragimenezkoa bermatuko duten estrategia- eta eragiketa-jarraibideak ezartzea da PDRaren helburua, ez zuzenean proiektuak eginez baizik proiektu horien oinarriak ezarriz. Ingurumen Ebaluazio Estrategikoa, eta, bereziki, ingurumen-jasangarritasun txostena (ISA) ikuspegi horretara egokitu behar da, non ekintzen zehaztasun-maila eta definizioa eta haien lokalizazioa ezin baita izan aurre-proiektuen mailako jarduera definitzea helburu duten beste plan edo programa batzuek dutena.

Urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikuluan xedatutakoari jarraituz, jendaurrean jartzen da, 45 egunez, 2014-2020 epealdirako Landa Garapenerako Programaren ingurumen-jasangarritasun txostena.

Azaldutakoagatik guztiagatik, eta Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 9ko 190/2013 Dekretuaren arabera, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoko 2014-2020 epealdirako Landa Garapenerako Programaren ingurumen-jasangarritasun txostena jendaurrean jartzea, berrogeita bost egunez, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera hasita.

Bigarrena.– Aurreko paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako, eta alegazioak aurkeztu ahal izateko, txostena eskuragarri egongo da Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritzan (Lakua II eraikina, 2. solairua; Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz) eta Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan (euskadi.net).

Vitoria-Gasteiz, 2014ko uztailaren 16a.

Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendaria,
ELENA GUTIÉRREZ PÉREZ DEL NOTARIO.